



## 1.- Etxean kontu- kantari

Jolasean eta kantuan ari garenean, une atseginak lortzen ditugu eta gure haurrekin aritzen gara barrez, gorputza laztantzen; jolas guzti hauek irudimena eta emozioak elikatzen, eta, hizkuntzaren eraikuntzan laguntzen digute. Adin tarte guztietan familian gozatzeko proposamenak egiten dizkizuegu zuen haurrekin jolasean aritzeko, zuen haurren irudimena, sentimenduak eta hizkuntza indartzeko. Adibide hauek ekarri ditugu gaurkoan: erori eta mina hartzen dutenean minak eta mimoak “sendatzeko” [“Senda mina”](#). Alaitasunez atzamarrak zenbatu eta bakoitzari izen bat jartzeko kantu bat [“Lehenengotxu hori”](#). Eta azkenik, erritmoz beteriko ipuin txiki bat: aztien afaria deskribatzen du honek, baina bere helburua erritmoarekin eta abiadura handian esatea da. Ezetz nahastu gabe esan [“Aztiak zurrin zurrinka”](#)! Ongi pasa!!!

## 2. Ipuinez ipuin

Gaurko ipuina haur koxkorrentzat oso aproposa da. Andersen maisuari hartu diogu eta moldaketa txiki bat baino ez diogu egin: pixka bat laburtu, aldaera txikiren bat sartu; ezer gutxi. [“Enperadorearen jantzi berria”](#) bere horretan gorde dugu ia-ia. Izan ere, Andersenek ederki asko azaltzen baititu jende pikaroak, agintarien inguruan hitz goxoak erabiliz, sortzen dituen amarruak dirutza handiak lapurtzeko. Batzuek losintzez eta lausenguez hitz egiten digute eta denoi gustatzen zaigu hori, baina hitz horiek zenbaitetan pozoiz beterik datoz... Amarruak amarru, eroek, mozkorrek eta haurrek botatzen omen dituzte zurikeriarik gabeko egia biribilak eta ipuin horren bukaeran haur batek agerian uzten du pikaro batzuek burutu duten iruzurra.

[Abrite portas. Klis-Klas!!](#)

## 3.- Gela barnean

Gaurko proposamenera hiru liburu dibertigarri ekarri ditugu. Bere egitura errepikakorra kontuan hartuta, haur txikien gozamenerako izango da [“Gabon hontza”](#). Bakoitzak bere ohiturak ditu, baina batzuenak desatseginak egiten zaizkigu... Umorea dastatzeko [“Oreintzi”](#) aurkezten dizugu. Liburu honek bere baitan ipuin bat baino, txiste bat gordetzen du, eta, itxuraz haur txikientzat bada ere, haurrak umoreaz eta ironiaz jabetzea eskatzen du mamiaz gozatu ahal izateko. Aldi berean, klasiko bat proposatzen dizuegu: [“Elmer”](#) elefante koloretsu eta alai. Elmerri kosta egiten zaio bere izaera desberdinarekin konformatzea, baina, halako batean, konturatuko da bere alaitasunak besteen alaitasunarekin bat egiten duela.

## 4.- Egitasmoa martxan !

[“Nascuts per llegir”](#) egitasmoak koordinazio lanak bertan behera utzi behar izan ditu finantziario faltan. Proiektu hori Bularretik Mintzora egitasmoaren anaia katalana da; 2002an abiatu zen Herrialde Katalanetan, Italiako “Natti per legere” proiektua eredu gisa hartuta. Italiarrek bezala, jaio-berrien eta 3 urte arteko haur txikien irakurketa ohiturak hobetzea zuen helburu. Batetik, anbulatorioetako pediatrek, emaginek eta ATSek, eta, bestetik, bibliotekariak garatu izan dute egitasmo hori, nagusiki. Oso emaitza egokiak jaso dituzten arren, ezin izan dute iraun eta 2014an utzi egin behar izan dute koordinazio lana. Orain arte, hainbat udal biblioteka eta anbulatorioetako lana koordinatu dute, haur txikientzat irakurketa jardueren ereduak eskainiz eta ekimen ezin hobekak proposatuz. Sortu dituzten baliabideak hainbat anbulatorio eta biblioteketan bizirik mantenduko dira denbora batean; baina, dirurik ezean, egitasmoa ezin izango da modu sistematizatu batean zabaldu eta ezingo dira edukiak berrikusi eta egokitu. Bularretik Mintzoraren hastapenetan haien laguntza oparoa jaso genuen, eta nolabait, umezurtz sentitu gara berri txar hori jaso dugunean.